




LAPATZA

(11-18.orr)

GALDERAK:

Adi! Galdera batzuetan erantzun egoki bat baino gehiago egon daiteke.

- a) Lagunek “Basera joan gaitezke?” galdetzen zutenean, zer egiten zuen Garazik? Klikatu erantzun egokiena(k). ★

☐	Debekatu egiten zien.
☐	Lotsatu egiten zen.
☐	Ezezko biribila ematen zien.
☐	Mutu geratzen zen.

- b) Zer egiten du txorixoa hil ez dadin? ★
Klikatu erantzun egokiena(k).

☐	Epel-epel mantentzen du bere habian.
☐	Ogia ematen dio jateko.
☐	Zizareak ematen dizkio jateko.
☐	Sardinak ematen dizkio.
☐	Laztandu egiten du.
☐	Txistu egiten dio bere ama dela pentsatzeko.




c) Zein da Garaziren kezka atal honen bukaeran? ★
Klikatu erantzun egokiena(k).

	Ez zekiela ondo zer eman jateko.
	Lagunek haren “altxorra” txita itsusi bat zela deskubritzea.
	Karramarroek txorikumea jatea.
	Zein txori mota, espezie, zen deskubritzea.
	Txita muntso bilakatzea eta herria birrintzea sua mokotik botaz.
	Lagunek burla egitea
	Txorikumeari izen polit bat jartzea.



d) Garazik arrautza aurkitu zuenetik....
Klikatu erantzun egokiena(k).

	Ez zen kalara joaten, oso arduraturik bait zegoen arrautza zaintzen.
	Egunero joaten zen basera.
	Portu inguruko “altxorren” bila joaten zen egunero.
	Portu inguruko “altxorren” bila joaten zen ahal zuenean.
	Amesgaiztoak zituen egunero.



- e) Arrantzaleek portuko garbitzaile onena zena esaten dioten, udalak soladatxo bat eman beharko liokela. Zergatik esaten zioten hori? Klikatu erantzun egokiena(k).

	Oso ondo garbitzen zuelako itsasertza.
	Udaletxeko langilea zelako.
	Berarentzat “altxorrak” ziren horiek, arrantzaleentzat zaborra zelako.
	Garazirekin txantxetan zeudelako.
	Arrantzaleek adarra jotzen ziotelako.



- f) Zein momentutan joaten zen Garazi bere Basera?

Klikatu erantzun egokiena(k).

	Marea gora zegoenean.
	Marea behera zegoenean.

- g) Zegatik ez zien Garazik haren lagunei Basera joaten uzten?

Klikatu erantzun egokiena(k).

	Mutilen argazkiak edukitzen zituelako bertan.
	Arrautza bertan zuelako.
	Basea sekretua zelako.
	Bertan diru eta altxor asko zuelako.



NO ENTRY

h) Arrautza kraskatzen entzun zuenean....

Klikatu erantzun egokiena(k).



☐	Arrautza kontu handiz kraskatzen lagundu zuen.
☐	Izutu egin zen.
☐	Urduritu zen, zer egin ez zekielarik.
☐	Laguntza eske joan zen.

i) Zergatik urduritu zen azala kraskatu eta gero?

☐	Hegazti hura oso beldurgarria zelako.
☐	Hegazti hura oso handia zelako.
☐	Hegazti hura txioka hasi zelako.
☐	Hegazti hura asko mugitzen zelako.

j) Zergatik uste du Garazik txita “mokofina” dela?

Klikatu erantzun egokiena(k).

☐	Mokoa fin-fina duelako.
☐	Denetarik jaten duelako.
☐	Mokoa duelako.
☐	Ez duelako edozer gauza jaten.

k) Zergatik jarri dio “Lapatza” izena txitari?

Klikatu erantzun egokiena(k).

	Mokofina delako.
	Asko jaten duelako.
	Aurkitu zuen lekuagatik.
	Zizareak eta sardinak oso gustuko dituelako.

BUKATU DUZU!!

ADI, HIRU GAUZA EGIN BEHAR DITUZU ORAIN:

- 1-** Ariketa zure irakasleari bidali.
- 2-** Izartxoak duten galderak  liburuan daude (24.orr= a, c eta d).
 - Ondo erantzun dituzunak liburuak kopiatu.
 - Gaizki egindako galderak, irakaslearekin egingo duzun zuzenketan, zuzenketa boliarekin kopiatuko dituzu.
- 3-** Liburuan, 24.orrialdeko b. galderari zuk erantzun.